

Egunez egun diabetesarekin

Zikloa: 1.a, 2.a eta 3.a

Caia: Odolean dugun glukosa-maila neurtzea

IRAKASLEA

IKASLEAK

1/3



www.fundaciondiabetes.org

Diabetesa duten pertsonentzat, batez ere haurrentzat, ezinbestekoa da odolean duten glukosa-maila neurtzea, neurketa horiei esker, glukosa-maila jakiteaz gain, desorekak ekiditen baitituzte.

Horregatik, litekeena da ikasleak neurketa horietako batzuk eskola-ordutegian zehar egin behar izatea.

Neurketa horiek ERREFLEKTOMETROAREN bitartez egiten dira. Beste batzuek "glukometro" edo "azukrea neurtzeko tresna" ere deitzen diote.



Tresna horiek mota askotakoak izaten dira baina denek mekanika bera izaten dute:

1. Haurrak ziztada bat egiten du hatzean orratz txiki bat duen ziztagailuarekin.
2. Odol-tanta bat jartzen du aldeaz aurretik tresnan sartutako tira erreaktibo batean.
3. Segundo gutxiren buruan pantaila digital batean ikus daiteke neurketaren emaitza.

Haurrak eguneroko batean idatzi ohi du emaitza hori. Eguneroko horri esker, bai haurrak baita medikuek ere, tratamendua erabakitzen dute. Hala ere, tresna modernoek emaitza guztiak gorde ahal izateko memoria izaten dute, eta ikasleek etxera iristean idatz ditzakete neurketen emaitzak.

Egunez egun diabetesarekin

Zikloa: 1.a, 2.a eta 3.a

Caia: Odolean dugun glukosa-maila neurtzea

IRAKASLEA

IKASLEAK

2/3



www.fundaciondiabetes.org

Salbuespenak salbuespen, diabetesa duten lehen hezkuntzako haur guztiek jakiten dute neurketa horiek egiten. Haurrek, diabetesa diagnostikatzen zaienean, heziketa diabetologikorako programa bat egin behar izaten dute eta hori da, hain zuzen ere, programa horren lehen helburuetako bat.

Hala ere, egokia iruditzen zaigu tutoreak prozedura hori ezagutzea. Egin ezazu froga. Ez izan beldurrik, ia ez du minik ematen. Carbitasuna dela eta, kontuan izan orratza ezin dela partekatu.

Erreflektometroa haurrak berak eraman ohi du baina, batzuetan, gurasoek tresna bat eman ohi diote tutoreari mahai gainean izan dezan.

NOIZ EGIN BEHAR DA?

Haurraren eboluzioa ikuskatzen duen mediku-taldeak zehaztu ohi du hori. Orokorrean, otordu bakoitzaren aurretik (hamaiketako eta merienda barne), Corputz Hezkuntzako klaseen aurretik eta haurrak bere glukosa-maila behar baino gehiago jaitsi dela nabaritzen duenean (hipogluzemia) neurtu behar da glukosa-maila. Glukosa-maila edozein unetan jaitsi daiteke, baina, bereziki, ohikoa dena baino ariketa gogorragoren bat egitean gertatu ohi da.

Hori dela eta, komenigarria da haurrari neurketa horiek egiteko bidea erraztea eta ohiko bihurtzea.

Ez da komeni neurketari garrantzi gehiegi ematea. Nahikoa da neurketaren ondoren haurrari ongi dagoen galdetzea.

Haur batzuek egoera hori besteen arreta bereganatzeko baliatzen dute. Beste batzuei, ordea, kontrakoa gertatzen zaie: gorde egiten dira edo, jendearen arreta ekidin nahian, ez dute glukosa-maila neurtzen.

Beraz, gure helburua ekintza hori ohiko bihurtzea da. Haurrari eta ingurukoei jakinaraztea glukosa-maila neurtzeko, ez beste ezertarako, balio duela.

Egunez egun diabetesarekin

Zikloa: 1.a, 2.a eta 3.a

Caia: Odolean dugun glukosa-maila neurtzea

IRAKASLEA

IKASLEAK

3/3



www.fundaciondiabetes.org

COMENDATUTAKO JARDUERAK

IZENBURUA	DESKRIBAPENA	ZIKLOA:	ERREF.
Zer behar du Carolek?	Puzblea osatuko dugu, diabestesa duen haur batek bere burua zaintzeko behar dituen gauzekin.	1.a	09
Zenbakiak lantzen (2)	Ordena itzazu txikitik handira. Gehiketak.	1.a	12
Zenbakiak lantzen (3)	Zenbakitik letrara eta letratik zenbakira..	1.a	13
Tutorearentzako txantiloia.	Ariketak diseinatzeko erabilgarri den txantiloia.	1.a	15